



# NUEVO ACUERDO DE PENSIONES EN EL DIÁLOGO SOCIAL

Combatiendo la desigualdad desde el sindicalismo confederal

## ¿De dónde venimos?

En el año 2021 un acuerdo de la mesa de diálogo social derogó tanto el factor de sostenibilidad como el índice de revalorización de las pensiones.

Un acuerdo que generó nuevos derechos y confirmó que eran posibles las medidas para actuar incrementando los ingresos del sistema, en lugar de optar por la vía del recorte de las pensiones.

**Es un acuerdo que da certezas sobre la garantía y suficiencia de nuestras pensiones públicas presentes y futuras, frente a los sindicatos y las organizaciones del “no”, alienadas en Euskadi con los intereses de la patronal.**



## OBJETIVOS CUMPLIDOS

- Dotar al sistema público de pensiones del músculo económico suficiente para hacer frente a los retos del futuro.
- Reducción de la brecha de género en pensiones.
- Subida de las pensiones mínimas superior a un 20%.
- Reconocimiento de la fórmula más beneficiosa de cálculo de la pensión para la persona trabajadora.

# PENTSIO AKORDIO BERRIA ELKARRIZKETA SOZIALEAN

Desberdintasunei aurre eginez sindikalismo konfederaletik



## Nondik gatoz?

2021 urtean elkarrizketa sozialeko mahaiko akordio batek pentsioen jasagarritasun faktorea eta errebalorizazio indizea indargabetu zituen.

Akordio horrek eskubide berriak eragin zituen eta baieztatu zuen posible zirela sistemaren diru-sarreak handitzeko neurriak ezartzea pentsioen murrizketaren bidea hartu beharrean.

**Gure pentsio publikoen bermeari eta nahikotasunari ziurtasuna ematen dien akordioa da, gaurko eta etorkizuneko pentsioei, “munduaren amaieraren aztien” eta “ezetz” esaten duten erakundeen aurrean, Euskadin patronalaren interesekin bat egiten dutenak.**

## LORTUTAKO HELBURUAK

- Pentsio sistema publikoa etorkizuneko erronkei aurre egiteko behar besteko gihar ekonomikoaz hornitzea.
- Pentsioetan genero arrakala murriztea.
- Gutxieneko pentsioen igoera, %20 baino gehiago.
- Langilearentzat onuragarrien suertatzen den kalkuluaren aitortza.



Desberdintasunari aurre eginez sindikalismo konfederaletik

# PENTSIOEN AKORDIOA GIZARTE ELKARRIZKETAN

CCOO.EUS

## Diru-sarreraren gainean eragiten duten neurriak

### Belaunaldien arteko elkartasun mekanismoa (MEI)

Diru-sarrerak indartzen laguntzen duen mekanismo hau Gizarte Segurantzako Erreserba Funtza baliabidez hornitzera zuzenduta dago.

2029 urtean kotizazio tasa %1,2koa izango da, %1 enpresaren kontura eta %0,2 langilearenera.

### Gehienezko kotizazio oinarria handitu

Gehienezko kotizazio oinarrien handitzea %38ko benetako hazkundera iritsiko da (inflazioa kenduta) 2045 urtean. Gaur egun duten errealitatearen azpitik kotizatzen duten soldatez ari gara.

### Elkartasun kuota

Kuota hau %6ra iritsiko da eta gehienezko kotizazio oinarria gaitzen duten soldatei aplikatuko zaie. Horren funtzioa sistemaren elkartasunari eustea da.

### Gehienezko pentsioen igoera

Gehienezko oinarriko kotizazioak handitzen dira beraz gehienezko pentsioak ere igoko dira, baina ez neurri berean. Erreformat duen elkartasun printzipioari eusteko gehienezko pentsioek, gehienezko oinarriak baino gutxiago igoko dira.

## Genero arrakala murriztea

### Kotizatutzat aitortutako epeen zabaltzea

Kotizatutzat aitortuko diren epeak zabalduko dira, seme-alaben, harrerako adingabeen eta bigarren maila arteko senideen zaintzagatiko eszedentzia eta/edo lanaldi-murrizketako lehen 3 urteetara arte.

### Hutsuneak betetzeko formula hobetu

Sistemak ezartzen zuen, kotizazio hutsuneko lehen 4 urteak aintzat hartuko zirela pentsioen kalkuluan gutxieneko oinarriaren %100eko zenbatekoan eta gainontzekoak erreferentzia horren %50ean.

Akordioaren bidez, emakumeen kotizazio-ibilbidea hobetu egingo da, etenaldi gehiago direla eta ibilbide prekarioagoa izan ohi dutelako. Kotizazio hutsuneeen lehenengo 5 urteak gutxieneko oinarriaren %100 egongo dira, beste bi urte %80ean eta gainontzeko hutsune urteak %50ean.

### Genero arrakalaren osagarria handitzea

Urteko batz besteko KPlaren errebalorizazioa baino %10 gehiago igoko da 2024 eta 2025 urteetan, beraz osagarria 40€ra iritsiko da seme-alaba bakoitzeko.

### Gutxieneko pentsioen eta kotizatorik gabeko pentsioen igoera

Pentsio horien hiru onuradunetatik bi emakumeak dira, beraz arlo honetan ezartzen den edozein neurrik eragin zuzena izango du pentsioen arrakalaren murrizketan.

Neurri honek eskaera sindikalak jasotzen ditu, pentsio hauen zenbatekoa %20 baino gehiago igota, inoiz ere ez daitezkeen geratu pobreziaaren atalasearen azpitik.

## Kalkulu-aldia

Sistema berria ezarri da. 27 urterik onenak hautatu daitezke, kotizatutako 24 hilabete okerrenak baztertuta, 29ren epealdiaren barruan. Sistema hau gaurkoarekin batera egongo da indarrean, zeinak azken 25 urteak hartzen dituen erreferentziatza. Nolanahi ere, Gizarte Segurantzak erretiroa hartzen duen pertsonarentzat bi sistemen artean onuragarria den egoera aitortuko du.

